

PRENTSA-OHARRA

Adimen artifiziala pertsonaren eta robotaren arteko ahots eta keinu bidezko interakziorako

- *Tekniker zentro teknologikoak hitz edo keinu bidez pertsonen eta makinaren arteko interakzioa errazteko adimen artifizialaren arloan egindako azken aurrerapenak aurkeztuko ditu hurrengo BIEMH biurtekoan Azokara joaten den edonork eman ahal izango dizkio aginduak robotari, ahotsez edo keinuz, robotak adierazitako lana egin dezan*
- *Teknologia in situ probatu ahal izango da bin picking aplikazioetarako zelula robotiko kolaboratibo baten erakusle batean*

[[Eibar, 2022eko maiatzak 19](#)] - Adimen artifizialeko teknologiek ahots edo keinu bidezko kontrolean egindako aurrerapenak egunez egun ikus daitezke gure etxeetan, Alexa edo Siri bezalako sistema ezagunen bidez. Industriaren kasuan, makinaren eta pertsonen arteko interakzio-formula berri horiek gero eta garrantzi handiagoa dute, sektore askotan ekoizpen-prozesuak etengabe automatizatzen ari direlako.

Alde horretatik, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide den **Tekniker** zentro teknologikoak, esperientzia handia du adimen artifizialeko teknologien garapenean, hala nola machine learning eta deep learning deiturikoetan edo lengoia naturalaren prozesamenduan eta soluzio adimendunak lortzeko datuak eskuratuz, prozesatuz eta arrazoituz, industria-ingurune kolaboratibo eta digitalizatuak bultzatzeko horien balizko aplikazioetan.

Teknikerrek teknologia horiek aurkeztuko ditu BIEMH-ren hurrengo edizioan. Software-geruza bat robot batean txertatzearen emaitza erakutsiko du, sistema automatizatuarekiko interakzioa modu naturalean eta programazioan espezializatutako prestakuntzarik gabe errazteko.

Horretarako, zentro teknologikoko ikertzaileek irudiei buruzko deep learning tekniketari oinarritutako adimen artifizialeko ereduak garatu eta trebatu dituzte. Horiei esker, erabiltzaileak

egindako hitzak eta keinuak komando edo agindu gisa hauteman eta interpretatu ahal izango ditu sistemak.

Adimen artifiziala eta hizkuntza naturala

Teknikerrek garatutako teknologia in situ probatu ahal izango da nazioarteko azokan bin picking aplikazio industrialetarako zelula robotiko kolaboratibo erakusle baten bidez.

Hain zuzen ere, zentro teknologikoko adimen artifizialean oinarritutako soluzioari esker, sistema automatizatuaren erabiltzaileak dozena-erdi aukeraren artean objektu bat hautatu ahal izango du eta, ahots-/keinu-komandoen bidez, objektu hori non laga nahi duen adieraziko du.

Prototipoak, gainera, ikusmen artifiziala izango du, bin picking sistemak zer objektu detektatu dituen eta robotak manipulatu duen hurrengo zein izango den ikusteko.

Erakusle hori Bilboko Bilbao Exhibition Centren 2022ko ekainaren 13tik 17ra egingo den Makina Erremintaren Nazioarteko Biurtekoaren hurrengo edizioan egongo da ikusgai, 1. pabiloiko C14 korridorean kokatutako zentro teknologikoaren erakustokian.

Proiektu honek eragina du GJHetako bitan; hain zuzen ere, 8. GJH - Lan duina eta hazkuntza ekonomikoa helburuan eta 9. GJH - Industria, berrikuntza eta azpiegitura helburuan, garapen jasangarriaren ekonomia- eta ingurumen-oinarriak lortzen eta, azken batean, gizarte osoari lagunduz.

Teknikeri buruz

Tekniker fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-ren bidez gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ▶ Unai Macias

unai@guk.es | Tel. 690 212 067